

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

Ebazpena, 2025ean garapenerako lankidetzaproiektuei dirulaguntzak emateko deialdiko "Urteko Proiektu Kateatuen Aukeraketa (UKA)" atalari buruzkoa

Iragarki honen bidez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko uztailaren 24an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Erabaki horren bidez, 2025eko garapenerako lankidetzaproiektuetarako dirulaguntza-deialdiko "Urteko Proiektu Kateatuen Aukeraketa" (UKA) atala ebazten da. Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 14ko ohiko bilkuran onetsi zuen deialdia.

Deialdia bost ataletan banatzen da. Hirugarrena, UKA atala, honela dago definituta:

"UKA atala. 2026-2028 ekitaldietan diruz lagunduko diren urteko proiektu kateatuen aukeraketa", hiru urtekoak, eta horiek formulatzeko egiteke dauden lan teknikoetan laguntzea. Zuzkidura ekonomikoa: 90.000,00 euro.

UKA atalaren helburua da gehienez urteko 11 proiektu kateatu aukeratzea, hau da, hiru urtez —2026, 2027 eta 2028— jarraitutasuna izateko perspektibarekin planteatutako urtez urteko eskuhartzeak, eta, egoki bada, horien behin betiko formulazioa egiteko beharrezko diren azterlan teknikoetarako eta lanetarako dirulaguntza ematea.

UKA atalerako baliagarri dagoen zenbateko 90.000,00 euro da, "Lankidetzarako dirulaguntzak" 2025/2450.2391.48200 partidaren kontura.

Hogei eskabide aurkeztu dira garaiz eta behar bezala; Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak, deialdian adierazitakoaren arabera aztertu eta baloratu ondoren, UK atala ebazteko txosten teknikoa egin zuen 2025eko uztailaren 11n.

Txosten horren haritik, eta Kirol, Osasun eta Garapenerako Lankidetz Saileko zinegotzi ordezkariak proposatuta, hauxe erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko uztailaren 24an egindako bilkuran:

Erabakia

Lehenengoa. 2025eko garapenerako lankidetzaproiektuetarako dirulaguntzen deialdiko UKA (Urteko Proiektu Kateatuen Aukeraketa) atalean ondoen baloratutako hamaika proposamenak aurrez aukeratzea, proiektuen behin betiko formulazioa osa dezaten, eta proposatutako hamaika proposamenetatik zazpiti dirulaguntzak ematea, adierazitako zenbatekoetan, proiektuak behin betiko formulatzeko egiteke dauden lanak egiteko, taula honen arabera. Zenbateko horiek 40.808,00 eurokoak dira, eta aukera ematen dute UKA atalerako dagoen zuzkidura ekonomikora egokitzeko (90.000,00 euro):

UKA ATALEAN AURREZ AUKERATUTAKO ENTITATEAK				
IFZ	ENTITATEAREN IZENA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	FORMULATZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZA, EUROTAN
G01513308	Unión Y Apoyo Del Hablante De Pular "Haaly Pular" Elkartea	Diogodiral Gasteiz-Futah	Guinea Conakry	8.000,00
G01373943	Kolonia-Euskadi elkartea	Indarkeria matxistaren biktima diren askotariko emakumeak eta seme-alabak babesteko eta artatzeko programa (Tolima)	Kolonia	0
G95204160	Mundubat Fundazioa	Laguntza integrala, generoaren eta giza eskubideen inguruko ikuspegi diferentzialarekin, judizializatutako eta askatasunaz gabetutako pertsonentzat (Kolonia)	Kolonia	0
G01513308	HAALY PULAR, Gasteizko Pular Hitzunen Batasun eta Babes Elkartea	Demaro Gambia-Gasteiz	Gambia	9.000,00
G01119205	Setem Hego Haizea elkartea	Alderdi ekonomotik harago: Eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak eta jasagarritasun ekologikoa baso lehor tropikalean. Manabí – Ekuador	Ekuador	0
G48811376	Alboan Fundazioa	Enpresa arduratsua sustatzea, nekazaritza-kooperatibismoaren eta lanbide-heziketaren bidez (Lukaya)	Kongoko Errepublika Demokratikoa	3.000,00
G01373943	Kolonia-Euskadi elkartea	Tolima Joven Verde	Kolonia	7.400,00
G01138858	Servicio de Solidaridad San Viator de Euskalherria - SERSO elkartea	Itxaropen leihoak: Saabako haurrak hezte	Burkina Faso	0
G01119205	Setem Hego Haizea elkartea	Nekazaritza-lurraldearen, -ekonomiaren eta -bizimoduaren iraupena sustatzea, ikuspegi feminista, ingurumenaren aldekoa eta belaunaldiartekoa aintzat hartuta (Ebéjico udalerria, Antioquia mendebaldea)	Kolonia	6.000,00
G48301428	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional	Emakumeek autonomia ekonomikoa, indarkeriarik gabeko bizitza eta parte-hartze sozial eta politikoa izateko eskubidea sustatzea (Kébémér, Louga eta Tivaouane eskualdeak)	Senegal	4.260,00
G48263446	Mugarik Gabe, Garapenerako Lankidetzako Gobernuz Kanpoko Erakundea	Aktibismo osasungarriaren aldeko aliatuak	Kolonia	3.148,00
Formulatzeke diruz lagundutakoa, guztira				40.808,00

Bigarrena. Hautatutako proposamenei dagozkien behin betiko proiektuak 2026ko berariazko deialdian aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena. Oinarrien 4.2 artikulua arabera, UKA atalean esleitu ez den zenbatekoa (49.192,00 euro) bideratzea dirulaguntzen deialdi bereko LT, PT eta US ataletako eskaerak diruz laguntzera, betiere deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak eta puntuazioa betetzen badituzte.

Laugarrena. Deialdi honetan emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan –Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoaren ildotik–, ALHAOn, Udalaren iragarki taulan eta udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) argitaratzeko agintzea, eta datu hauek adieraztea bertan: onuradunak, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak 13. artikuluan eskatutako gainerako informazioa.

Erabaki honen kontra errekurtsio hauek aurkez daitezke:

– Berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman zuen organoaren beraren aurrean, 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera (39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena), hilabeteko epean; eta, errekurtsio horren ebazpen espresuaren edo presuntziozkoaren kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ezesteko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo sei hilabeteko epean, errekurtsioaren presuntziozko ezespina gertatu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

– Edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

– Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Ukatutako eskabideak eta horretarako arrazoiak 1. eranskinean jaso dira.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 24an

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

1. Eranskina. Ukatutako eskabideak

Ukatutako eskabideak honako hauek izan dira:

a) Deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik:

ENTITATE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	BETE GABEKO BALDINTZAK
Ayuda en Acción	Nahitaez migratzen duten pertsonen babes eta arreta integrala emateko zerbitzuak indartzea, bereziki genero indarkeriatik bizirik ateratako emakumeei, kohesio sozialeko prozesuak bultzatuz eta tokiko gaitasunak, giza eskubideen defentsa eta bi herrialdeen arteko koordinazioa indartzuz (Guatemala-Mexiko)	7.1.b, 12.8 eta 33.1 artikulua

b) Deialdiaren 12.11 oinarrian gutxienez ehuneko 50eko puntuazioa ez lortzeagatik:

ENTITATEAREN IZENA ETA IFZ	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PUNTUAZIOAREN EHUNEKOA
Ayuda en Acción - G82257064	Turismo jasangarriarako proiektua Boliviako Amazonian – ahalduz bideak: Boliviako Amazoniako emakumeen eta gazteen hezkuntza tekniko profesionala eta enplegu- eta ekintzazailtza-aukerak hobetzea, ikuspegi ekofeministarekin	Bolivia	Ehuneko 33,05
Euskal Elizbarrutiko Misiok Gasteiz - R0100606C	Genero-berdintasuneko eta belaunaldi-inklusiorako prozesuak indartzea San Isidroko Raíces y Sueños fundazioan parte hartzen duten komunitateekin	Ekuador	Ehuneko 26,75

c) Gainerako sei eskabideek ehuneko 50etik gorako puntuazioa lortu zuten, jarraian zehazten denaren arabera, baina ukatu egin dira ondoen baloratutako hamaika eskubideen artean ez egozteagatik; izan ere, hori da aurrez aukeratu beharreko proposamenen muga, deialdiaren 30.1 oinarriak ezartzen duenaren arabera.

ENTITATEAREN IZENA ETA IFZ	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PUNTUAZIOAREN EHUNEKOA
Mugarik Gabe, Garapenerako Lankidetzako Gobernu Kanpoko Erakundea - G48263446	Indarkeria matxistatik gabeko komunitate seguru, zaintzaile eta inklusiboak San Salvadorren	El Salvador	Ehuneko 60,20
Servicio de Solidaridad San Viator de Euskalherria - SERSO elkarte - G01138858	Indarkeriaren isiltasuna apurtuz	Honduras	Ehuneko 59,75
Medicus Mundi Araba elkarte - G01109644	Emakumeen ahotsak, aldaketarako ekintzak: artikulazioa eta estrategiak, berdintasuneko eta indarkeriarik gabeko herriak helburu	Peru	Ehuneko 58,83
Solidaridad Vasco Ecuatoriana elkarte (ASVE) - G01387141	Giza Eskubideak eta familia-harremanak indartzen: "Gizarteratze-programa askatasunaz gabetutako pertsonentzat eta haien familientzat, genero-ikuspegia eta giza eskubideak oinarri - lbarrako espetxea, Ekuador"	Ekuador	Ehuneko 57,40
Fundación Mundubat - Mundubat Fundazioa - G95204160	Karibu: Giza eskubideen defendatzaileak babestea, ikuspegi panafrikarista oinarri	Senegal	Ehuneko 57,23
Ingeniería para la cooperación - Lankidetzarako ingeniari-tza (ICLI) - G01198274	Emakume aimara ahaldunduak eta saretuak, eskubideak erabat baliatuz beren ekintzazailtza indartzeko	Bolivia	Ehuneko 52,38